

# SH.E

## egungoa

S i n d i k a l H e z i k e t a

# 1999ko euskal ekonomiaren egoera

ILAB

Hezkuntza

ZA  
BAL  
TZEN

Zbkia

S14K 00007

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA



# **1999ko euskal ekonomiaren egoera**

Erredakzioa: **Joselu CERECEDA**  
**Marijo ARRAIZA**  
**Rafa IZQUIERDO**  
**Sara QUESADA**  
**Iosu HUERTAS**  
**Aitor ASTIBIA**

Argitarazlea: **Ipar Hegoa Fundazioa**



**EUSKO JAURLARITZA**  
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN  
ETA GIZARTI BARRUTIA



**GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

**2000ko Otsailak**



SINDIKAL HEZIKETA

# 1999ko euskal ekonomiaren egoera

<b>EUSKAL EKONOMIAREN EGOERA</b> .....	5
<b>LAN MERKATUAREN AZTERKETA ETA IKUSPEGIAK</b> .....	8
<b>1999 URTEAN HEGO EUSKAL HERRIAN IZANDAKO KONTRATAZIOAREN AZTERKETA</b> .....	11
<b>ERANSKINAK</b> .....	14



# Euskal ekonomiaren egoera

## KE UGARI ETA SU GUTXI

**Aspaldi honetan, egoera ekonomikoaz berbaegiteko orduan ele baikorrak baino ez ditugu entzuten, baina errealitateak dioskuna bestelakoa da. Iazko Martxoko alean genioen bezala, Kapitalismoa epe luzerako krisian dago eta azken hiru urteotan, hala Europan zein Ipar Amerikan, Sistema epe laburreko goraldian ibili da, luzerako beheraldian egon arren.**



Hala da, zoritxarrez. Aztertu besterik ez dago enpleguari dagokionez, 2000.ko Urtarrilean euki ditugun datuak : Hego Euskal Herrian 4.462 langabe gehiago daude (Bizkaian, 1620-%3,36, Nafarroan 1.454-%8,5, Araban 737-%6,81 eta Gipuzkoan 651-%2,74 gehiago). Espainiako Lan agintariak, datu hauek, Gabonetan egiten diren aldi baterako kontratuen bukaerak eraginda daudela diote. Are, "egoera ekonomiko on honen hainbat lagun bultzatu du INE-Men izena ematera enplegu bila". Horregatik langabetuen kopurua igo da -Kontsolatzen ez denak, gu-

ra ez duelako daj-. Politika eta Ekonomia munduan intoxikazio da nagusi eta munduko gezurrik borobilenak esaten dira.

Egia esan, datu hauek 1.994.ko beheralditik gaur arte, txarrenak dira eta ez dira koiunturazkoak, baizik eta hazkunde ekonomiko eta barruko eskaeraren taseen jeitsierak bultzatuta. Ez dago benetako enplegu politikarik eta aldi baterako kontratazioan egiten den iruzurra, izugarria da. Ez dugu ahaztu behar epe luzerako beheraldian gaudela.

Goian esan bezala, azken urteotan egon gara etengabe entzuten ekonomia gora doala. Hazkunde ekonomikoa euki dugu, bai, baina emaitzak?. Ikus ditzagun: EHUko irakaslea den Joseba Garmendiak dioenez:

- a) Errentaren kontzentrazioa gehitu da (enpresen mozkinak gora, produktibitatea gora, soldatak gora...baina hauek inflazioaren azpitik).
- b) Hazkunde ekonomikoaren motoroa industria izan da, bai, baina benetan ondo dabiltzan

## Euskal ekonomiaren egoera



enpresak 300 dira (handiak eta ertainak) besteek (10.000 gutxi gorabehera) mota guztietako egoerak jasaten dituzten bitartean. Euskal Ekonomiak dituen egiturazko arazoek bere horretan diraute (batzuk larriak dira, e.b. teknologi maila eskas, ikerketa gutxi...).

- c) Ale honetan ikus daitekeenez, lan kontratazioaren egoera tamalgarria da (lan kontratu mugagabe arrunta ia desagertu da, aldikotasuna, ezegonkortasuna dira nagusi, kaltetuenak emakumeak eta gazteak).
- d) Tegnologia maila eskasak, soldata erreal baxuen eta lan baldintza kaskarren bidez konpetentzia egitea eskatzen du.

e) Euskal Herrian ez daukagu benetako enplegu politika bat eta dagoen zerga sistemak errenta altuenei egiten die mesedea, erromeskeria, giza bazterketa gero ta gogorak dira...

Bestaldetik, ez dira gutxi kolokan dauden enpresak baina, berriro Ezkerraldea daukagu ilunbetan. "Babcock&Wilcox" eta Sestaoko "La Naval" enpresen egoera larria da, benetan, zeren beren etorkizuna ziurtatu gabe baitago. "La Naval" enpresak gasero batzuk ekoizteko kontratu bat lortuko bala, epe laburrean behintzat, aurrera jarraituko luke. "Babcock" erosle baten zain dago, zeinak agian "Mecanica de la Peña" aldi berean salbatuko luke, baina enpresa bietan lantaldeen izugarriko murrizketak egin ondoren. Ez dugu ahaztu behar enpresa hauek

zeharkako lanpostu ugari sostengatzen dituztela...

Lehenengo Sektorea ere ez dabil batere ondo. Arrantza Sektorea hiltzorian dago Euskal Herrian, arrantzaleek ez diote ikusten inolako etorkizunik sektoreari. Arrantza kupoak, bolantak, salneurri txikiak... eta Sektoreak aspalditik dituen egiturazko arazorak. Egoera hau eragiten duten benetako arazoiei serio serio aurrea egingo ez balitzaie... Sektorea desagertzeaz legoke.

Nekazaritza eta Abeltzantza arloez beste hainbeste esan genezake, Bruselatik datorren araudiak, multinazioanalak, teknika-gehienbat kaltegarriak edozein ikuspuntutik-berriak, arloak jasaten duen utzikeria... Urteak daramate astiro astiro hiltzen.

Epe luzerako beheraldian gaude eta badirudi epe laburreko beheraldian batean ere sartzen gaudela. Korritu tasak- interes tipoak- igoko balira- antza denez, hori gertatuko da- depresioa, krisia, bizkortuko litzateke.

Bestaldetik, beti bezala, inflazioa galgatzea zaila izango da, batez ere petrolio produktuen prezioek igotzen jarraitzen badute. Inflazioa kontrolatzeko aitzakiaz, soldaten igoera, kaleratzearen prezioa e.b. murrizteko ahaleginak egingo dira...

## BAIKORTASUNARI LEHIO BAT

Parka irakurle hainbeste etsipen, baina gauzak esan behar dira diren bezala. Baina joan den urtearen bukaeran berri on bat euki genuen, zentzu batean baikorrak egoteko modukoa. Seattlen garatu zen "Munduko Merkataritzako Erakundeko Milurteko Zikloa" ("Ciclo del Milenio de la Organización Mundial del Comercio"). Jakina denez, OMC-MME eta beste hiru erakundek (FMI-OCDE-BM), munduko ekonomia kontrolatzen dute, Neoliberalismoa inposatuz. Ziklo honek, zorionez, porrot egin zuen. ONG-ek, Sindikatu batzuk, mota askotako taldek, sekulako garaipen ideologiko-sikologiko lortu zuten OMC-ren, Kapitalismoaren aurka. Nazioarteko gizarte zibil berri bat jaio da. Seattlen entzun zen ohiu bat esanez, "Nahiko; Globalizazioa ez da ezinbestez gertatu behar den ezer. Merkatua ez da Jaungoikoa, Mundua ez da merkantzia bat. Nahiko aguantatu, soportatu dugu. Akabo;". Ideologia hau eztabaidatu, zabaldu behar dugu. Eta indarrak antolatu, gure ingurutik, Herritik hasita, mundu zabalera ailegatu arte.



## AZKEN BERRIAK

"Babcock&Wilcox", "La Naval" eta "Mecapeña" enpresei buruzko azken berriek itxaropen apur bat ematen digute. Izan ere, "Babcock&Wilcox", "Babcock Borsig" alemaniarrek erosiko du. "B&W"-en lantaldean 650 langile baino ez dira geratuko. Lantaldea murrizteko, alde zuzeneko erretiroak, sarituriko bajak edo beste enpresa publiko batzuetan sartzeko aukerak erabiliko dira. "Borsig" multinazionalak "B&W" gune teknologiko bat izan dadila eta Estaturako, Hego Amerikako eta Afrikako estatu batzuetarako energia eta ingurugiroko produktuen erantzule bakarra izatea nahi du. "Borsig"-ek "Mecapeña" bere gain hartuko balu.

Badirudi epelaburrean, "La Naval" "Bazan" ontziola militarrean baterabilduko dela. Gasero batzuk daude egiteko "Repsol" ontziolarekin batera, baina -horrela diote- "La Naval"-ek lehentasuna izango du. "La Naval" ontziolak dituen ezaugarrien arabera, bere espezializazioa gas-ontziak, draga-ontziak eta balio handiko ontziak ekoiztean etzango da, ez du ekoiztuko ontzi militarrik, seguraski.

"Mecapeña"-k kontratu bat lortu du Mexikon, baina 500 milio pezetako abal bat behar du. Ordainketa etendura aurkitzen denez, Bankoek ezin diote aipaturiko abal hori eman. Horregatik Urdulizko enpresak abal hau eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

# Lan merkatuaren azterketa eta ikuspegiak

**Biztanleria Landunaren Inkestaren (EPA) arabera, 1999.ko laugarren hiruhilekoan, Hego Euskal Herrian, 139.700 pertsonak zeuden langabezian, hots, biztanleria Landunaren langabezi tasa, %12,4 izan zen.**

**Iturri estatistika honen arabera, baita ere, landunak, 55.400 pertsona gehiago izan ziren, iazko hiruhilekoaz parekatuz. Hori dela eta, langabeziaren jeitsiera, 22.500 pertsonakoa izan zen eta Lan Merkatuan sartu ziren 32.900 gizakiak.**

**Hala eta guztiz, behin baino gehiagotan esan bezala, datu hauek uzurtasunez hartu behar dira zeren inkesta garatzeko erabilitako mostra oso mugatua baita. Jarduerarekiko Biztanleriaren Inkestak (PRA)<sup>1</sup>, fidagarritasun gehiago daukanak, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, langabezia 21.300 pertsona gehiagokoa zela zioen.**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		NAFARROA
<b>Langabetuak</b>	19.200	13.300	87.300	79.500	38.600	31.000	15.900
<b>Langabezi tasa</b>	% 13,4	% 10,2	% 17,1	% 16,4	% 12,1	% 10,6	% 7,2
<b>1999ko 4. hiruhil.</b>	<i>PRA</i>	<i>EPA</i>	<i>PRA</i>	<i>EPA</i>	<i>PRA</i>	<i>EPA</i>	<i>EPA</i>

Kontuan hartu behar dugu, gainera, urtearen hasieran EPA inkestan sarturiko aldaketa metodologikoa. Hori dela eta, inkesta honetan, irregularitasun gehiago daude, zeren orain arte izkutatuta zegoen enplegua zenbatzen baita.

Adibidez, 1999.urtean eta EPA-ren arabera, pertsona landunen kopurua %6,67 hazi zen Araban,

Bizkaian eta Gipuzkoan, PRA-k hazkunde hau %3,6 izan zela zioen bitartean. Zenbaki honek askoz errealagoa dirudi, BPG %3,8 hazi zela kontuan hartzen badugu.

Nafarroan, enplegua, iaz, %3,2 hazi zen (EPA-ren arabera noski. PRA inkestak EAEko datuak baino ez ditu kontuan hartzen) eta BPG, Iruñeko Gobernuaren arabera, %4.

Desberdintasun estatistikak gorabehera, Hego Euskal Herriko Lan Merkatuaren azterketa global bat egiteko EPA erabiliko dugu informazio homogoneoa erabiltzeko asmoz. Hala eta guztiz, aurreko epealdien datuez erkaketa ez da izango fidagarria, batez ere egindako aldaketa metodologikoa direla eta.

<sup>1</sup> EUSTAT ek garatua, Gasteizko Gobernuaren Estatistikako Euskal Institutua.

Giza arlo desberdinek bizi duten egoera aztertzean, beste behin, egoerarik txarrena jasaten dutenak emakumeak eta gazteak direla ziurtatzen dugu, gaurko Sistemak bultzatuta.

Emakumeek daukaten jarduera tasa baxuak (% 40,7), eurek jasatzen duten lan bazterketa isladatzen du, zeren emakumeen erdia baino gehiago Lan Merkatutik kanpoan baitira. Hala eta guztiz, biztanleria langabetuaren % 65 dira, langabezi tasa altuegia jasatzen dutelako. Hamar emakume aktibotatik, bi langabezian daude.

16-25 tarteko gazteek, Lan Merkatuan agerrera gutxi daukate, baina kasu honetan, jarduera ezaren tasa altua (% 59,8) ikasten dabiltzalako da.

Hala eta guztiz, lanaren bila dabilzanek, egoera biziki gogor bati aurre egin behar diote zeren 25 urte baino gutxiagoko lau pertsonatatik, bat langabezian baitago.

## ERROMESKERIA LAN MERKATUAN

Sorturiko lanpostuen kalitatea, enpleguaren sorketa bezain garrantzitsua da. Beheraldia egoeretan galtzen diren lanpostuak gehiago dira aurreko goraldietan

HEGOALDE	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Gazteak
<i>Landunak</i>	991.400	375.300	616.100	101.800
<i>Langabetuak</i>	139.700	90.200	49.500	32.600
<i>Langabezi tasa</i>	% 12,4	% 19,4	% 7,4	% 24,3
<i>Enplegu tasa</i>	% 45	% 32,8	% 58,1	% 30,4
<i>lharduera tasa</i>	% 51,4	% 40,7	% 62,8	% 40,2
<i>Aldikotasun tasa</i>	% 31	% 36,1	% 27,6	% 69,5

**ITURRIA: EPA, 1999ko 4. hiruhilekoa.**

sorturikoak baino. Hau gertatzeko arrazoietariko bat, erromeskeria da askoren ustetan.

Baina Lan Merkatuaren etengabeko malgutasunak sortzen duen erromeskeriaren eraginaren zerrrenda oso luzea da: segurantzaz falta ekonomikoa, lan eta soldata baldintzen pobretzea, etengabeko lanbide-heziketara heltzeko ezintasuna, lan istripu bat jasatzeko probabilitate handiagoa...

Azken Lan Erreformak<sup>2</sup>, CCOO, UGT sindikatuek eta espainiar ugazaberiak bultzatuta (geroago PP-ek bedeinkatuta) Langileen Estatutuan aldaketa handiak sartzen zituen, kaleratzea errazteko eta merketzeko asmoz. Aldi berean, kontratu mugagabe berri bat sortu zen zeinak kaleratzeko indemnitzazio txikiago eskatzen baitu.

Egoera hartan esaten zen aipaturiko erreformak, "Lan Merkatuak zituen zurruntasunak ezabatze-ko", kontratazioa hobetzeko eta enpleguaren egonkortasuna bermatzeko zela. Lorturiko emaitzek berez egiten dute berba.

Kaleratze aurrean langile klaseak duen babesarik ezak, ez du konpondu aldikotasun altuaren arazoak. 1999ko 4. hiruhilekoan soldatapekoen % 31ek aldi baterako enplegu bat zeukaten, aurreko urtean, aldi berean, aldikotasun tasa % 30 zen bitartean.

Baina giza arlo guztiak ez daude eraginda modu berdinean. Emakume soldatapekoek duten aldikotasun tasa % 36,1 da, gizonezkoena % 27,6 den bitartean. Gazteria dago behartuta edozein motatako lana onartzeko Lan Merkatuan sartzeko eta bere aldikotasun tasa da % 69,5.

<sup>2</sup> 1997ko Maiatzean indarrean ipini zen.

## Euskal ekonomiaren egoera

### LANGABEZIAGATIKO BABESAREN MURRIZ- KETAREN ONDORIOAK

1992.<sup>3</sup> eta 1993. urteetan, PSOEk langabeziagatiko babes sistemaren murrizketak gauzatu zituen; prestazioak jasotzea posible egiten duten baldintzak gogortu ziren eta zenbatekoa zein iraupena ere laburtu egin ziren. Orduetik, langabeziagatiko babesa gero eta eskasagoa bilakatu da.

1999. ean Hego Euskal Herrian, batzaz beste, 27.667 langabetuk prestazio kontributiboa jaso zuten eta aldi berean, beste 20.650ek doako prestazioak. Hau da, hiru langabetutatik batek jaso zituen INEMek ematen dituen prestazioak.

Dena den kasu honetan ere emakume eta gizonen artean badira desberdintasun nabariak. Langabezia dauden gizonen % 54,3 INEMeko prestazioen hartzailea da; emakumeen artean, berriz, %22,1.

Egoera honen gakoak patronalak egiten dituen kontratazioen erabilera aurkitzen da. Izan ere, alde batetik gizonen kontratazioari lehentasuna ematen dio, eta bestalde, emakumeentzat kontratu prekarioak bideratzea hobesten du. Guzti honek prestazioak jasotzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzea oztopatzen du.

### Enplegua bilatzeko denborarekiko langabetuak

EPA, 1999ko 4. hiruhil.	Urtebete baino gehiago	Urte bi baino gehiago
Emakume langabetuak	% 59	% 44
Gizon langabetuak	% 53	% 37

INEMen parte-hartzeak gehiago larriagotzen du egoera, prestazioak kobratzen dituztenak kontratazea errazten duelako, zeinak gizonak baitira, gehienbat. Emakumea langabezian denbora luzea go egotera eragiten duen beste arrazoi bat.

Beste alde batetik, prestaziorik gabe geratzen den langabetu kopuru itzela kontutan hartuta, esan beharra dago txirotasunarekin gero eta erlazionatuta dagoela.

Lan Merkatuaren Erroldaren arabera<sup>4</sup> langabezian dauden kolektibo nagusiak dira: alde batetik 25-44 urte bitarteko emakume ez-unibertsitariak eta bestalde, 45 urte baino gehiago dituzten langabetuak. Ez da kasualitatea bi talde hauek Birgizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerara jasoten duten pertsonen %73 osatzen dutela.

### LANA SORTZEKO ITXAROPIDEAK

Zuzperraldi ekonomikoa hasi zenetik, bagaude sei urte goraldi ekonomikoa, BPG-ren gehikuntzak, Europako batzbestekoa bai-

no handiagoak izanik. Hala eta guztiz, langabezi tasa, oraindik, Europako Batasuneko batzbestekoa baino lau puntu gehiagokoa da.

Euskal herrian, jarduera tasa Europakoa bezain handia balitz, alde hau handiagoa litzateke. Baina Lan Merkatuan, ordaindutako enplegu bat eskatzeko populazioa Europan baino intentsitate gutxiagoz sartzetik langabeziaren maila handiagoak izkutatzen ditu.

Bestaldetik, ezin dugu ahaztu, azken urteotan garapen ekonomikoa bultzatu duen eragiletariko bat, inbertsio pribatuak izan duen portuera dinamikoa izan dela.

Ekoizpen ehuna berriztatzeko egindako ahaleginak produktibitatea areagotuko du eta, beraz, lanpostuen sorketa baldintzatuko du. 1.999ean, jadanik, enplegu sorketaren intentsitatea gutxitu da.

Guzti honi, gure inguru ekonomikoan dauden geldiajotze aurreikuspenak gehitu behar zaizkio, zeinak enplegu sorketaren erimoa gutxituko ahala, larriagotuko baitira.

<sup>3</sup> 1992. ean "dekretazo"-aren urtea - langabezian zeudanen % 42,8-ek, INEM-en kontribuziozko zen laguntzasunezko ordainketak jaso zituzten.

<sup>4</sup> EAEko datuak, 1998 urtean.

# 1999 urtean

## Hego EHN izandako kontratazioaren azterketa

1999. urtean, Hego Euskalherrian, gutxi gorabehera, 815.000 lan kontratu erregistratu ziren, %91,1 aldi baterakoak izanik, mugagabeak %8,9 izan ziren bitartean.

INEM-ek emandako datuen arabera, iaz sinaturiko lan kontratuak, aurreko urtearekiko parekatuz %14,8 gehiago izan ziren. Enplegu sorketarekin baino, aldikotasunaren hazkunde azeleratuarekin gehiago erlazionatuta egonik.

Kontratazioaren aldikotasun kezkarri horrez gain, zatikako denborako kontratazio mugagabearen hazkunde harrigarria azpimarratu behar da (%50 baino gehiago), honek suposatzen dituen soldata-baldintzak eta giza- babesarekin. Zentzu honetan, zatikako denborako mugagabeen eta aldi baterakoen batuketa kontuan hartzen badugu, sinaturiko lan kontratuaren guztizkoaren %92,5 prekariorioak izan zirela esan daiteke.


Halaber, lan kontratu mugabeen %66 (sorketa berrikoak edo aldi baterako lan kontratuak mugagabe bihurtzean sorturikoak) modalitate berrikoak izan ziren. Jakina

denez, modalitate berri honek dituzten Giza Segurantzako dezente murriztuak dauden enpresari kuotak eta kanporatzeagatiko kalte-ordaina txikiagoa.

INEM-ek berak aitortzen du mugagabe berri hau indarrean ipini zenetik, egindakoaren %20 jadanik deuseztatua izan dela. Espero zenez, lan kontratu mugagabe berri honen hedapenak, alde batetik, enplegu finkean segurantzaz falta sortu du, eta bestetik mugagabe arrunta ia ia desagertarazi du. Gaur egun egindako lan kontratuaren %1,6 baino ez da, beraz figura sinboliko batean bihurtu da.

1997. ean espainiar enpresarien eta CCOO eta UGT sindikatuen artean sinaturiko Konfederazioarte-ko Akordiotik sorturiko Lan Erreforma ez da izan gauza enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta aldikotasun tasa murrizteko, azken hau maila berdinean mantenduz.

Aipaturiko Akordio hartan, aldi baterako kontratazioa erabiltzeko baldintzak mugatzeko konprometua hartu zen, Obra edo Zerbitzu lan kontratuei eta ekoizpenaren zirkunstantziengatik sorturiko aldi baterakoei jarraipen berezia eginenez. Hala eta guztiz, modalitate



## Euskal ekonomiaren egoera

hauek erabilienak izaten jarraitzen dute, zeren kontratazioaren %58,7 baino gehiago suposatzen baitute, 1996. ean %54 suposatzen zuten bitartean.

Lan errotazioari dagokionez, esan beharra dago aldi baterako kontratazioaren erabilpen faltsuak eragiten duela iraupen mugatuko aldi baterako kontratuen %77,5k hiru hilabete baino gutxiagoko iraupena edukitzea. Urtebete baino gutxiagoko iraupena duten kontratuak kontutan hartzen baditugu ehunekoa %99,5eraino iristen da.


INEM-en behin behineko datuen arabera, 1999. ean, ABLE-en bidez, 197.654 lan kontratu egin ziren. Kontratu hauen %90k hilabete bat baino gutxiagoko iraupena eduki zuen eta %49k, bost egun baino gutxiagokoa.

Enpresariak segurtasun falta hau erabiltzen dute langileak "disziplinatzeko" eta beste era batean onartuak ez liratekeen lan baldintzak inposatzeko. Baina, lan istripuak, baita ere, behin-behinekotasunari zuzenki lotuta daude.

Aldi baterako kontratazioaren gehiegikeriak, ABLE-en erabilpenak eta azpikontratazioaren erabilpenaren hedapenak, errotazio-maila bat sortarazten dute, zeinak, eskarmentu egoki bat hartzea eragozten eta etengabeko hezkun-tzarako sarbidea oztopatzen baitu.

Honek guztiak, lan arriskua haunditzen du eta bere eragina dauka gaur egun dagoen lan istripuen kopuru haundian. Iaz, lan istripuak direla eta, 148 langile hil ziren, hauetatik 110 zendu ziren lanean zihardutenean.

1994. urtetik, hain zuzen ABLEak sortu ziren urtetik, aldi baterako lanpostu batean lan istripu bat ja-



URTEA	Enplegu finko dutenen arteko lan istripuen ehuneko mila	Aldi baterako lana dutenen arteko lan istripuen ehuneko mila	ZIOA
1993	59,5	81,1	1,4
1994	59,5	84,0	1,4
1995	60,6	93,0	1,5
1996	56,9	101,6	1,8
1997	53,3	108,9	2,0
1998	55,0	125,3	2,3

**ITURRIA:** INE eta Lan eta Gizarteko Arazoen Ministeritza.

satzeko probabilitatea etengabe dago hazten, lanpostu finko batekoaren bikoitza baino haundiagoa izanik.

Kontrataziobideen jarraikako malgutasunak Lan Merkatu binako bat sortu du eta talde zabalek jasaten duten gainesplotazioaren iturria da, batez ere, gazteak eta emakumeak.

Lan Merkatuan, gizonézkoen lana hobesten da, honek emakumeek jasaten duten tratu diskriminatzailea egiaztatzen du. Horrela, nahiz eta emakumeek langabezian dagoen biztanlegoaren %60 izan, 1999.ean eginiko lan kontratuen %44,5 bakarrik sinatu zuten. Ehuneko hau txikiagoa da, lan kontratu mugagabeak badira (%37,9).


Halaber, sexuaren araberako eginiko lan banaketa eta etxeko lanak emakumeen esku ia ia eskusiban uzteak, zatikako denborako kontratuen %68,7 emakumeentzat izatea eragiten du.

Emakumeek gizonek baino aldi baterako lan kontratu gehiago sinatzen dituztenen beste froga bat hauxe da: emakumeek sinaturiko lan kontratuen %7,5 dira mugagabeak, gizonen ehuneko %9,9 den bitartean.

Baina tamalgarriagoa da gazteriak jasaten duen lan egoera, zeren sinatzen dituen lan kontratuen %5,9 baino ez baitira mugagabeak eta mugagabe arruntak %0,4 baino ez.

Langabezi tasa haundiak, 25 urte baino gutxiagoko hiru pertsonatik bati dagokiona, lanpostu bat lortzeko ABLEtara jotzera behartzen du. Horrela ulertzen da ABLEek kontrataturiko pertsonen %75, 30 urte baino gutxiagokoak izatea.

Finean, ez enpresarien etekinek, ez soldaten apaltasunak (igoerak inflazioa baino txikiagoak izanik), ez elkarren segidako lan erreformek eragindako Lan Merkatuaren "malgutasunak" ez dute sortarazten enplegu egonkor eta kalitate-duna.



# Eranskinak

## HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA

(EPA: 4. HIRUHILEKOA - 1999)

\* 16urte baino gehigoko biztanleriak ez ditu soldaduzka edo PSSa egiten duten gizonezkoak.

SEXU BIOK	4. hiruh. / 99	4. hiruh. / 98	DESB.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	991.400	936.000	55.400	Guztira	790.400
LANGABETUAK	139.700	162.200	-22.500	Mugagabe.	545.100
AKTIBOAK	1.131.100	1.098.200	32.900	Aldibatera.	245.300
LANGABEZI TASA	12,4	14,8	-2,4	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	45,0	42,5	2,5		
IHARDUERA TASA	51,4	49,9	1,5		
ALDIKOTASUN TASA	31,0	30,0	1,0		
16 urtetik gora	2.202.500	2.201.200	1.300	urtebete +	79.300
				2 urte +	58.000

EMAKUMEAK	4. hiruh. / 99	4. hiruh. / 98	DESB.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	375.300	341.400	33.900	Guztira	316.900
LANGABETUAK	90.200	99.900	-9.700	Mugagabe.	202.400
AKTIBOAK	465.500	441.300	24.200	Aldibatera.	114.500
LANGABEZI TASA	19,4	22,6	-3,2	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	32,8	29,6	3,2		
IHARDUERA TASA	40,7	38,3	2,4		
ALDIKOTASUN TASA	36,1	32,9	3,2		
16 urtetik gora	1.142.700	1.153.200	-10.500	urtebete +	53.100
				2 urte +	39.600

<b>GIZONAK</b>	<b>4. hiruh. / 99</b>	<b>4. hiruh. / 98</b>	<b>DESB.</b>	<b>SOLDATAPEKOAK</b>	
<b>LANDUNAK</b>	<b>616.100</b>	<b>594.600</b>	<b>21.500</b>	<b>Guztira</b>	<b>473.500</b>
<b>LANGABETUAK</b>	<b>49.500</b>	<b>62.400</b>	<b>-12.900</b>	<b>Mugagabe.</b>	<b>342.800</b>
<b>AKTIBOAK</b>	<b>665.600</b>	<b>657.000</b>	<b>8.600</b>	<b>Aldibatera.</b>	<b>130.700</b>
<b>LANGABEZI TASA</b>	<b>7,4</b>	<b>9,5</b>	<b>-2,1</b>	<b>LANGABEZIAN</b>	
<b>ENPLEGU TASA</b>	<b>58,1</b>	<b>56,7</b>	<b>1,4</b>	<b>urtebete +</b>	<b>26.200</b>
<b>IHARDUERA TASA</b>	<b>62,8</b>	<b>62,7</b>	<b>0,1</b>	<b>2 urte +</b>	<b>18.300</b>
<b>ALDIKOTASUN TASA</b>	<b>27,6</b>	<b>28,2</b>	<b>-0,6</b>		
<b>16 urtetik gora</b>	<b>1.059.600</b>	<b>1.048.100</b>	<b>11.500</b>		

<b>GAZTEAK (&lt;25 URTE)</b>	<b>4. hiruh. / 99</b>	<b>4. hiruh. / 98</b>	<b>DESB.</b>	<b>SOLDATAPEKOAK</b>	
<b>LANDUNAK</b>	<b>101.800</b>	<b>94.200</b>	<b>7.600</b>	<b>Guztira</b>	<b>94.100</b>
<b>LANGABETUAK</b>	<b>32.600</b>	<b>42.100</b>	<b>-9.500</b>	<b>Mugagabe.</b>	<b>28.700</b>
<b>AKTIBOAK</b>	<b>134.400</b>	<b>136.300</b>	<b>-1.900</b>	<b>Aldibatera.</b>	<b>65.400</b>
<b>LANGABEZI TASA</b>	<b>24,3</b>	<b>30,9</b>	<b>-6,6</b>	<b>LANGABEZIAN</b>	
<b>ENPLEGU TASA</b>	<b>30,4</b>	<b>26,5</b>	<b>3,9</b>	<b>urtebete +</b>	<b>11.500</b>
<b>IHARDUERA TASA</b>	<b>40,2</b>	<b>38,3</b>	<b>1,9</b>	<b>2 urte +</b>	<b>7.400</b>
<b>ALDIKOTASUN TASA</b>	<b>69,5</b>	<b>75,2</b>	<b>-5,7</b>		
<b>16 urtetik 25era</b>	<b>334.500</b>	<b>356.100</b>	<b>-21.600</b>		

# HEGO EUSKAL HERRIAN EGINIKO KONTRATUAK

1999 - URTARRILA/ABENDUA (EHUNeko BERTIKALAK)

	Guztira	%	Emakum.	%	Gizon.	%	<25 urte	%
<b>EZ-MUGATUAK</b>								
Ohikoak	13.185	1,6	3.907	1,1	9.278	2,1	1.131	0,4
Sustapenekoak	23.601	2,9	8.244	2,3	15.357	3,4	7.883	2,7
Bihurtuak	23.974	2,9	7.814	2,2	16.160	3,6	5.049	1,7
Aldi partzialekoak	10.925	1,3	7.297	2,0	3.628	0,8	3.218	1,1
Besteak	545	0,1	137	0,0	408	0,1	63	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>72.230</b>	<b>8,9</b>	<b>27.399</b>	<b>7,5</b>	<b>44.831</b>	<b>9,9</b>	<b>17.344</b>	<b>5,9</b>
<b>ALDIBATERAKOAK</b>								
Obra edo zerbitzukoak	217.016	26,6	60.961	16,8	156.055	34,5	69.030	23,7
ekoizpe arrazoiengatik	261.315	32,1	102.262	28,2	159.053	35,2	105.273	36,1
Bitartekoak	77.659	9,5	51.425	14,2	26.234	5,8	19.604	6,7
Aldi partzialekoak	160.048	19,6	110.235	30,4	49.813	11,0	64.947	22,3
Praktiketakoak	11.248	1,4	4.654	1,3	6.594	1,5	7.540	2,6
Prestakuntzakoak	5.488	0,7	1.608	0,4	3.880	0,9	5.428	1,9
Besteak	10.043	1,2	4.434	1,2	5.609	1,2	2.357	0,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>742.817</b>	<b>91,1</b>	<b>335.579</b>	<b>92,5</b>	<b>407.238</b>	<b>90,1</b>	<b>274.179</b>	<b>94,1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>815.047</b>	<b>100</b>	<b>362.978</b>	<b>100</b>	<b>452.069</b>	<b>100</b>	<b>291.523</b>	<b>100</b>

## IRAUPEN MUGATUKO KONTRATUAK

HEGO EUSKAL HERRIA - 1999

	hil<=3	3<hil<=12	12<hil<=18	18<hil<=24	24<hil	Azpitotala	Zehazkab.
<b>KONTRATU KOPURUA</b>	354.326	100.562	1.439	351	677	457.355	285.462
<b>%</b>	77,47	21,99	0,31	0,08	0,15	100	

## SINIESTRALITATEAREN BILAKAERA (kontratu motaren arabera)

- HEGO EUSKAL HERRIA -

Urtea	Kontratu ez-mugatuak			Aldibaterako kontratuak			Koziente
	Soldatapekoak	Istripuak	Tasa	Soldatapekoak	Istripuak	Tasa	
1993	451.625	26.867	59,5	191.950	15.575	81,1	1,4
1994	437.125	26.027	59,5	199.800	16.776	84,0	1,4
1995	431.900	26.188	60,6	209.500	19.478	93,0	1,5
1996	458.600	26.093	56,9	202.900	20.620	101,6	1,8
1997	478.925	25.544	53,3	219.250	23.870	108,9	2,0
1998	499.950	27.475	55,0	218.500	27.371	125,3	2,3
	(1)	(2)	(3)*	(1)	(2)	(3)**	(4)

**ITURBURUAK:** INE eta Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

- 1) Kontratu motaren araberako soldatapekoak (EPA). Saillaezinak kenduta.
- 2) Baja eragin zuten lan eginez sorturiko istripuak, kontratu motaren arabera. (Saillaezinak kenduta).
- 3) Siniestralitate tasa: (istripuak/soldatapekoak) x 1000
- 4) Kozientea: 3\*\* / 3\*

### Langabeziagatiko prestazio kontributiboak

1999	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA	3.329	1.891	1.438
BIZKAIA	11.861	7.322	4.539
GIPUZKOA	6.622	3.696	2.926
NAFARROA	5.855	3.051	2.804
<b>H.E.H.</b>	<b>27.667</b>	<b>15.960</b>	<b>11.707</b>

### Langabeziagatiko doako prestazioak

1999	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA	1.915	1.208	707
BIZKAIA	10.671	7.666	3.005
GIPUZKOA	4.294	2.320	1.974
NAFARROA	3.770	1.779	1.991
<b>H.E.H.</b>	<b>20.650</b>	<b>12.973</b>	<b>7.677</b>

### Langabeziagatiko prestazioen guztizkoa

1999	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA	5.244	3.099	2.145
BIZKAIA	22.532	14.988	7.544
GIPUZKOA	10.916	6.016	4.900
NAFARROA	9.625	4.830	4.795
<b>H.E.H.</b>	<b>48.317</b>	<b>28.933</b>	<b>19.384</b>

### Langabeziagatiko babespena

1999	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA	% 37,52	% 68,87	% 39,18
BIZKAIA	% 27,39	% 45,73	% 15,25
GIPUZKOA	% 35,59	% 59,13	% 23,93
NAFARROA	% 52,45	% 82,21	% 38,51
<b>H.E.H.</b>	<b>% 33,26</b>	<b>% 54,26</b>	<b>% 22,06</b>